

2025eko urriaren 9a, osteguna

193

Jueves, a 9 de octubre de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

«18. Apatta Erreka» esparruko «18.1 (Tolosa)-Ibarrako Lurrak» azpiesparruko Urbanizazio-proiektua. Hasierako onespena.

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hogeita bosteko irailaren hogeita hiruan, besteak beste, ondoren aipatzen den erabakia hartu du:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea «18 Apatta Erreka» esparruko «18.1 (Tolosa)-Ibarrako Lurrak» azpiesparruaren urbanizazio-proiektuari (2024ko abenduaren 23an aurkeztua), behin betiko onespena eman aurretik honako hauek zuzentzeko baldintzapean:

Ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez ere hilabeteko epean zuzenketa hauek biltzen dituen dokumentua aurkeztu beharko da:

- Apattan aurretik egindako industriagunetik tunelera doan bide zuzena 20 cm-ko ZA-25 zabor-legarrezko zoruarekin egokituko da.
- Zerbitzu-sareen kanalizazioen trazadura eta elementuak lurzoru publikoan kokatzea ezinezkoa denetan, zortasuna sortuko da azpiegituren mantentze-lanak egiteko. Zortasun horiek plano batean jasoko dira.
- Ur-hornidura sarea: Gipuzkoako Urakek adierazitakoa bete beharko da. Alde batetik, 8.2.1 planoan adierazitako puntu baxuetan aurretiko kutxatilak gehitu beharko dira, F1.10.2 eta F1.7.2.9 putzuekin konektatu aurretik. Eta bestetik, 8.2.2 planoan dauden xehetasunak egokituko dira, ur hornidura sarearen seinalizazio-zinta bikoitza adierazteko.
- Saneamendu sarea: 8.3.2 planoan adierazitako putzuen barne-neurriak Gipuzkoako Urak-en Behe Sareko Araudi Teknikoan zehaztutakora egokitu beharko dira.
- Mugikortasun murriztua dutenentzako aparkalekuen arrapalaren xehetasunak jasoko dira.
- Obra plana Urbanizatzeko Jarduketa Programan zehaztutakora egokitu beharko da, hau da: 1. faseko obretarako 18 hilabete, bigarren fasea hasteko 24 hilabete, eta 2. fasea bukatzeko 12 hilabete.
 - Obra plana: txerritokiaren eraistea I. fasean jasoko du.
- Aurrekontua: eguneraturiko prezio unitarioekin aurkeztuko da.

Bigarrena. Urbanizazio-proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana, «Estudio de impacto ambiental del proyecto de urbanización del subambito 18. (Tolosa)-Terrenos de Ibarra» izeneko dokumentua, 2022ko irailaren 30ean aurkeztutakoa, kontsultarako eta jendaurreko informaziorako aldi baten mende jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Gipuzkoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan iragarkia jarrita. Halaber, eskura jartzea udal honetako iragarki-oholean eta egoitza elektronikoan ere.

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Proyecto de urbanización del subámbito «18.1 (Tolosa)-Terrenos de Ibarra» del ámbito «18. Apatta Erreka». Aprobación inicial.

La Junta de Gobierno Local de Tolosa, con fecha veintitrés de septiembre de dos mil veinticinco, ha adoptado, entre otros, el siguiente acuerdo:

Primero. Aprobar inicialmente el proyecto de urbanización del subámbito «18.1 (Tolosa)-Terrenos de Ibarra» del ámbito «18 Apatta Erreka», presentado con fecha 23 de diciembre de 2024, con la condición de subsanar los siguientes con carácter previo a su aprobación definitiva:

En el plazo máximo de un mes desde la notificación de la presente resolución se deberá presentar un documento con las siguientes subsanaciones:

- El vial recto que discurre desde la zona industrial previamente construida en Apatta hasta el túnel se acondicionará con suelo de 20 cm ZA-25 zahorra.
- En los casos en los que el trazado y los elementos de las canalizaciones de las redes de servicio no puedan ubicarse en suelo público, se generará servidumbre para el mantenimiento de las infraestructuras. Estas servidumbres se recogerán en un plano.
- Red de abastecimiento de agua: se deberá cumplir lo indicado por Gipuzkoako Urak. Por un lado, en los puntos bajos señalados en el plano 8.2.1 se deberán incorporar arquetas previas antes de la conexión con los pozos F1.10.2 y F1.7.2.9. Por otro lado, se adecuarán los detalles que figuran en el plano 8.2.2 para indicar la doble cinta de señalización de la red de abastecimiento de agua.
- Red de saneamiento: las dimensiones interiores de los pozos señalados en el plano 8.3.2 deberán ajustarse a lo especificado en el Reglamento Técnico de la Red Baja de Gipuzkoako Urak.
- Se incluirá el detalle de la rampa de aparcamiento para personas con movilidad reducida.
- El Plan de Obras deberá ajustarse a lo especificado en el Programa de Actuación Urbanizadora; es decir, 18 meses para las obras de la fase 1, 24 meses para el inicio de la fase 2 y 12 meses para la finalización de la fase 2.
 - Plan de Obras: incluirá el derribo de la pocilga en la fase I.
- Presupuesto: se presentará con precios unitarios actualizados.

Segundo. Someter el proyecto de urbanización y el estudio de impacto ambiental denominado Estudio de impacto ambiental del proyecto de urbanización del subámbito 18. (Tolosa)-Terrenos de Ibarra, presentado el 30 de septiembre de 2022, a un periodo de consulta e información pública por un plazo de treinta días hábiles, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en los diarios de mayor difusión en Gipuzkoa. Asimismo, se pondrá a disposición pública en el tablón de anuncios y en la sede electrónica de este Ayuntamiento.

www.gipuzkoa.eus 1 LG.:S.S.1-1958

Epe horretan, interesdunek beren eskubideak eta interesak defendatzeko egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Hirugarrena. Eragindako administrazio publikoei kontsulta egitea proiektuak izan ditzakeen ingurumen ondorio esanguratsuei buruz. Hogeita hamar egun balioduneko epea izango dute, jakinarazpena jasotzen dutenetik hasita, txostenak egiteko eta egoki iritzitako alegazioak egiteko.

Laugarrena. Sektoreko legeriaren arabera nahitaezko txostena egin behar duten administrazioen aurretiazko txostenak eskatzea, eta dokumentua zerbitzuen konpainia hornitzaileei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta, hala badagokio, dagokion txostena egin dezaten, dagokion sektoreko legeriak ezarritako epeetan.

Bosgarrena. Jendaurrean jartzeko izapidearen irekieraren eta iraupenaren berri ematea urbanizazio-proiektuaren eremuko lursailen jabeei, zehazki, Jabetza Erregistroan eta Katastroan jabe gisa agertzen direnei egingo zaie deia.

Seigarrena. Lehenengo puntuan zuzentzeko eskatutakoari dagokionez, prozedura ebazteko gehieneko epea (LHL 196.3 art.) etetea ebazpen hau jakinarazten denetik agindutakoa bete arteko denboran (39/2015 Legeko 22.1 art.).

Zazpigarrena. Jakinaraztea ezin izango direla urbanizazio obrak hasi hirigintzako kontzertazio hitzarmena formalizatu, batzordea eratu edo, jabe bakarra izanez gero, dagokion hitzarmena formalizatu arte, eta edozein kasutan birpartzelazio-proiektutik sortutako partzelak Jabetza Erregistroan inskribatu arte; Hirigintza Izaerako ekintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko Hipoteka Legea garatzen duen Erregelamenduaren Arau Osagarriak onartzen dituen uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuak xedatutako moduan.

Bestalde, ohartaraztea Ibarrako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko irailaren 19an, eta Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 20an, behin betikoz onetsitako Urbanizatzeko Jarduketa Programaren kronograma egungo egoerara egokitu beharko dela eta, beraz, udalean, kronograma berri bat aurkeztu beharko dela.

Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, izapide-egintza bat denez, ezin baita haren aurka errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoa.

Tolosa, 2025eko urriaren 6a.—Cristina Pelaez Errazquin, zinegotzi delegatua. (6944)

Durante este plazo, las personas interesadas podrán presentar las alegaciones que consideren oportunas en defensa de sus derechos e intereses.

Tercero. Consultar a las administraciones públicas afectadas sobre los posibles efectos ambientales significativos del proyecto. Dispondrán de un plazo de treinta días hábiles desde la recepción de la notificación para emitir los informes y formular las alegaciones que estimen oportunas.

Cuarto. Solicitar los informes previos de las administraciones que, de acuerdo con la legislación sectorial, deban emitir informe preceptivo, y remitir el documento a las compañías suministradoras de servicios para su conocimiento y, en su caso, para que elaboren el correspondiente informe, en los plazos establecidos por la legislación sectorial correspondiente.

Quinto. Dar traslado de la apertura y duración del trámite de información pública a los/las propietarios/as de terrenos incluidos en el ámbito del proyecto de urbanización que consten como propietarios/as en el Registro de la Propiedad y en el Catastro.

Sexto. Respecto a la solicitud de subsanación del punto primero, suspender el plazo máximo para resolver el procedimiento (art. 196.3 LSU) desde la notificación de esta resolución hasta cumplir lo ordenado (art. 22.1 Ley 39/2015).

Séptimo. Informar que las obras de urbanización no podrán iniciarse hasta la formalización del convenio de concertación urbanística, hasta la constitución de la comisión o, en caso de propietario/a único/a, hasta la formalización del correspondiente convenio y, en todo caso, hasta la inscripción en el Registro de la Propiedad de las parcelas resultantes del proyecto de reparcelación, en los términos establecidos en el Real Decreto 1093/1997, de 4 de julio, por el que se aprueban las normas complementarias del Reglamento que desarrolla la Ley Hipotecaria sobre inscripción en el Registro de la Propiedad de los actos de Naturaleza Urbanística.

Por otro lado, advertir que el cronograma del Programa de Actuación Urbanizadora aprobado definitivamente por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Ibarra con fecha 19 de septiembre de 2022, y por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa con fecha 20 de diciembre de 2022, deberá adecuarse a la situación actual y, por tanto, se deberá presentar en el Ayuntamiento un nuevo cronograma.

El presente Acuerdo no agota la vía administrativa por tratarse de un acto de trámite contra el que no cabe recurso alguno, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Tolosa, a 6 de octubre de 2025.—La concejala delegada, Cristina Pelaez Errazquin. (6944)